

**Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN****57/2019 TXOSTENA**

**Gaia:** 2020. Urterako prezio publikoen ordenantzetan aldaketak onartzea

**Txostenaren oinarria:** Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.1 artikulua

**1. Aurrekariak**

Lehena.- 2019ko urriaren 23an idazkari honek jaso du Tokiko Gobernu Batzarrak onartzeko proposatzen den prezio publikoen ordenantzetan aldakuntza espedientea.

Bigarrena.- Espedienteak hurrengoak jaso dira:

- 2020ko prezio publikoen ordenantzaren aldaketa proposamena
- Zerbitzuen kostuak eguneratuta.
- Txosten tekniko ekonomikoa.
- Kontuhartzailearen txostena

**2. Oinarri juridikoak****2.1. Aplikagarria den araudia**

- Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru-Araua

- Ordezko moduan, administrazio-zuzenbideko xedapen orokorrak eta zuzenbide arrunteko manuak, bereziki, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubideari buruz Indarrean dauden Lege Xedapenen testuategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena eta



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E30003175F00Q213F4J0Z0Q8

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 29/10/2019  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/10/2019 14:36:40

EXPEDIENTE ::  
2019IDA\_ERA\_0195  
Data: 21/10/2019  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu Araubide Juridikoaren araudia onartzen duena.

## 2.2. Hausnarketa juridikoa

Lehena.- Prezio publikoak 9/2005 Foru Arauaren 44. artikuluan eta hurrengoetan daude jasota. 44. artikulua kontzeptua jasotzen du: *Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeek prezio publikoak ezarri ahal izango dituzte zerbitzuak emateagatik eta udal eskumeneko jarduerak egiteagatik, beti ere foru arau honen 21. artikuluko 1. atalean zehaztutako inguruabarretariko bat ere ematen ez bada.*

Bere aldetik, 45. Artikuluan ezartzen dira baztertutako zerbitzuak eta jarduerak: *Ezin izango da prezio publikorik eskatu foru arau honen 22. artikuluan zerrendatutako zerbitzu eta jarduerengatik.*

46. artikulua nork ordaindu behar duen adierazten du: *Prezio publikoa duten zerbitzu edo jardueren onurak jasotzen dituztenek ordaindu beharko dute delako prezio publiko hori.*

Zenbatekoak 47. Artikuluan zehazten dira: *1. Emandako zerbitzuaren edo egindako jardueraren kostua bete beharko du, gutxienez, prezio publikoen zenbatekoak. 2. Horrela aholkatzen duten gizarte, ongintza, kultura edo interes publikoko arrazoiak daudenean, erakundeak aurreko atalean aurreikusitako mugaren azpitik dauden prezio publikoak ezarri ahal izango ditu. Kasu hauetan behar diren zuzkidurak izendatu beharko dira erakundearen aurrekontuetan, halakorik dagoenean, diferentzia estaltzeko.*

48. artikulua Kudeaketa jasotzen du: *Toki erakundeek autolikidazio araubidean eskatu ahal izango dituzte prezio publikoak.*



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E30003175F00Q213F4J0Z0Q8

### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI  
NAGUSIA - 29/10/2019  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/10/2019  
14:36:40

EXPEDIENTE ::  
2019IDA\_ERA\_0195  
Data: 21/10/2019  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



Kobrantzaren inguruan 49. artikulua dio: *1. Prezio publikoa ordaintzeko beharra zerbitzua ematen edo jarduera burutzen hasten den unetik sortzen da, baina toki erakundeek zenbateko osoa edo zati bat aldeztirik gordailutzea eskatu ahal izango dute. 2. Prezioa ordaindu beharra duenari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzua edo jarduera ematen edo egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio. 3. Prezio publikoen ondoriozko zorrak premiamenduzko administrazio prozeduraren bidez eskatu ahal izango dira.*

50. artikuluan finkapena ezarri da: *1. Korporazioaren osoko bilkurari dagokio prezio publikoak ezarri edo aldatzea; hala ere, indarrean dagoen arautegiarekin bat etorriz, tokiko gobernu batzordeari eskuordetzeko ahalmena izango du.*

Eta gure kasuan 2017ko azaroaren 29ko Osoko Bilkuran eskuordetza hori eginda dago, prezio publikoen testu arautzailea onartu zenean. Dena den, horrek ez du kentzen prezio publikoak Informazio Batzordean diktaminatu behar izana Tokiko Gobernu Batzarrak ebatzi aurretik.

*2. Toki erakundeek bere erakunde autonomiadunei egotzi ahal diete erakundeok beren kargura dituzten zerbitzuei dagozkien prezio publikoak finkatzeko eskumena, baldin eta prezio publiko horiek toki erakundeak ezarritakoak badira. Ezin izango dute hori egin prezioek kostua betetzen ez dutenean. Egozpen hori partzuergoen kasuan ere egin ahal izango da, era berdinean, horien estatutuetan besterik jasota ez badago. Kasu bietan, erakunde autonomiadunek eta partzuergoek proposamenaren eta prezio publikoek zerbitzuaren kostua betetzen dutela erakusten duen ekonomi egoeraren kopia bidaliko diote beren gaineratik dagoen toki erakundeari.*

Bigarrena.- Jarraitu beharreko prozeduraren inguruan legeak ez diosku Ordenantza fiskal, ordenantza orokor edo testu arautzailearen tresna erabili behar den. Horregatik, Auzitegi Gorenaren irizpidea jarrai dezakegu (2000. Urteko apirilaren 14ko epaia).



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E30003175F00Q213F4J0Z0Q8

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI  
NAGUSIA - 29/10/2019  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/10/2019  
14:36:40

EXPEDIENTE ::  
2019IDA\_ERA\_0195  
Data: 21/10/2019  
Lekua: Bermeon  
Erregistro uniditatea:  
Erregistro nagusia



Horren arabera, prezio publikoak aldatzeko edo onartzeko prozedura berezi bat jarraituko da, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 47.artikuluarekin bat. Beraz, ez zaio aplikatuko ordenantza fiskalen, ezta ordenantza orokorren prozedura. Eta irizpide hori jarraitu zen 2017ko azaroaren 29an Osoko Bilkurak onartu zuenean “Udal eskumeneko jarduerak egiteagatik edo zerbitzuak eskaintzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dauzan testu erregulatuak”.

Prezio publikoak testu arautzailearen bitartez arautzeko irizpide hori jarraitzen bada ere, komeni da prezio publikoei publizitatea ematea. Izan ere, izaera orokorreko ekintza administratibo baten aurrean gaude eta hartzaileak ugariak eta zehaztu ezinak dira. Hori guztia urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoan Prozedura Administratibo Erkidearekin 45.1.a artikuluekin bat etorrita.

Dena den, aurkezten den proposamena ordenantza aldatzekoa da. Eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1.a) artikulua udalei ordenantza fiskalak onartzeko ahalmena esleitu die.

Halaber, nork bere burua antolatzeko ahalmena ere esleitu dizkiete, eta horren arabera, toki erakundeek, haien eskumenen barruan, estatuko edo autonomia erkidegoko legeek xedatutakoa garatzeko ahalmena dute. Horrek esan nahi du izaera orokorreko eta legea baino beheragoko mailako administrazio xedapenak eman ditzaketela, baina xedapenok inola ere ezin izango dute legez kontrako manurik jaso.

Hirugarrena.- Hori horrela, ordenantza fiskal moduan aldatu edo onartu nahi bada prozedura hurrengoa izango litzateke:

Udalerrri osoan aplikagarriak diren udal ordenantza fiskalak onartzeko eskumena Osoko Bilkurak izango du, gehiengo soilez, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) artikulua eta 47. artikulua xedatutakoaren arabera. Dena den, aurretik aipatu dugun moduan eskumen hori eskuordetu daiteke eta



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E30003175F00Q2I3F4J0Z0Q8

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI  
NAGUSIA - 29/10/2019  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/10/2019  
14:36:40

EXPEDIENTE ::  
2019IDA\_ERA\_0195  
Data: 21/10/2019  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



eskuordetza hori eginda dago 2017ko azaroaren 29ko Osoko Bilkuran, prezio publikoen testu arautzailea onartu zenean. Dena den, 2568/1986 Errege Dekretuaren 123.1.<sup>1</sup> artikuluekin bat horrek ez du kentzen prezio publikoak Informazio Batzordean diktaminatu behar izana Tokiko Gobernu Batzarrak ebatzi aurretik.

Laugarrena.- Udal Ordenantzen eta Araubideen onarpenak, oro har, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16, 17 eta 18. artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua ezarritako prozedura jarraituko du.

1. Udal zerbitzuek Ordenantzen aldaketaren egitasmoaren artikuludun testua prestatuko dute.
2. Prezio publikoen kasuan, zerbitzuen kostuen azterketa tekniko-ekonomikoa egitea komeni da.
3. Aurretiazko fiskalizazio mugatuak kontrakoa esan ezean, kontuhartzaileak txostena egingo du, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen legearen testu bateginaren 214. artikulua eta abenduaren 2ko 10/2003 Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren 67. artikulua araberara.
4. Proposamena bideratuta Informazio Batzordearen irizpena beharko da eta, ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak hasierako onarpena emango dio, gehiengo soilaz.
5. Behin-behineko erabakien jendaurreko informazioa eta argitalpena egingo da 30 eguneko gutxieneko epean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaletxeko

---

<sup>1</sup>Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege dekretuaren 123. 1.artikula: Las Comisiones Informativas, integradas exclusivamente por miembros de la Corporación, son órganos sin atribuciones resolutorias que tienen por función el estudio, informe o consulta de los asuntos que hayan de ser sometidos a la decisión del Pleno y de la Comisión de Gobierno cuando esta actúe con competencias delegadas por el Pleno, salvo cuando hayan de adoptarse acuerdos declarados urgentes



iragarki taulan (fisikoa eta webgunekoa) eta probintziako islada handiko egunkari batean.

Epe horren barruan, interesdunek espedientea aztertu dezakete, bai eta egoki deriztoren erreklamazioak aurkeztu ere.

6. Aipatutako epearen barruan aurkeztu diren erreklamazio nahiz iradokizun guztiak ebatzi beharko dira, eta Tokiko Gobernu Batzarrak behin betiko onartuko ditu ordenantza fiskalak (aurretiaz Informazio batzordearen irizpena beharko da).

Erreklamaziorik aurkeztu ezean, ulertuko da Ordenantza automatikoki behin betiko onartuko dela. Ondorio horietarako, Idazkariak ziurtagiria egingo du hasierako onarpena behin betiko bihurtu dela egiaztatzeko.

7. Behin betiko erabakia edo hala bihurtu den behin-behineko erabakia eta aldatutako ordenantzen testua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Ez da indarrean sartuko argitaratze hori gauzatu arte.

Aurretiazko kontsulta publikoa dela eta, urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Erkidearen 133.1 artikuluan aurretiazko kontsulta publikoa ezartzen da ordenantzak onartzeko prozeduran. Hala ere, kasu honetan eraldaketa baten aurrean gaudenez, eta 2018ko urtarrilaren 10eko Estatuko Idazkaritzaren Tributuen zuzendaritza orokorraren txostenarekin bat etorriz, ez da beharrezkoa ikusten aurretiazko kontsulta hori egitea, nahiz eta praktika on bat izan.

### 3. Ondorioa

Kontuan izan prezio publikoak aldatu eta onartu daitezkeela ordenantzen figura erabili barik. Adibidez, prezio publikoen testu arautzaileen bitartez; beti ere, publizitatea bermatuta.

Ondorengo pasuetarako txosten honetan ezarritakoa kontuan izan beharko da. Besteak beste, Informazio Batzordeak diktaminatzeko betebeharra, Osoko Bilkuraren eskumena eskuordetuta dagoen kasuetan.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E30003175F00Q213F4J0Z0Q8

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI  
NAGUSIA - 29/10/2019  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/10/2019  
14:36:40

EXPEDIENTE ::  
2019IDA\_ERA\_0195  
Data: 21/10/2019  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia




Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak egoki deritzona erabakiko du.

*Orrri oinean sinatzailea eta data*



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

 <p>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI</p>	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E30003175F00Q2I3F4J0Z0Q8</p>	<p><b>Sinadurea eta data</b></p> <p>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 29/10/2019 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/10/2019 14:36:40</p>	<p>EXPEDIENTE :: 2019IDA_ERA_0195</p> <p>Fecha: 21/10/2019 Lekua: Bermeon Erregistro unidadea: Erregistro nagusia</p>
---	--	---	---

